

Zk-2448

AGINDUA, 2002ko martxoaren 26ko, Osasun sailburuarena, zeinean deialdia egiten baita 2002 urtean hasiko diren osasun alorreko ikerlan-proiektuetarako diru-laguntzak emateko.

Osasun Sailaren eskumenetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean osasun zientzien alorrean ikerkuntza jarduerak sustatzeko eginkizuna, Euskadiko osasun sistema garatzeko funtsezko elementua baita.

Honi dagokionez, apirilaren 14ko 13/1986 Legeak, Ikerkuntzaren Sustapen eta Koordinaketa Orokorrekoak; apirilaren 25eko 14/1986 Legeak, Osasuneko Lege Orokorrak; eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Osasun Antolamenduko Legeak, osasun ikerkuntza sustatzeko erreferentzi marko bateratu bat eskaintzen dute eta Osasun Sistema Nazionalean era integratuago eta eraginkorrago batean funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak hainbat jarduera programa onartu ditu Zientziaren eta Teknologiaren alorrean, eta horiek ere erreferentzi marko bat ezartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan ikerkuntza zientifiko eta teknologikoren garapenerako.

Hori horrela, eta urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak dionaren arabera.

XEDATU DUT:**1. artikulua.**— Esparrua eta xedea.

1.— Agindu honen xedea 2002 urtean hasiko diren osasun ikerkuntzako proiektuetarako diru-laguntzak emateko deialdia egitea da. Proiektuak aurkez ditzakete erakunde publikoek zein pribatuek, beren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badaukate eta Ikerkuntza Sanitarioko Fondorako (ISF) deialdian edo Estatuako Administrazio Orokorreko (EAO) Ikerkuntza Zientifikorako Estatu mailako Plangintzaren Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko beste deialdi batzuetan parte hartu arren, diru-laguntzarik jaso ez badute edo diru-laguntza partziala jaso badute. Bi modalitate daude:

A) Ikerkuntza klinikoko eta osasun plangintza eta kudeaketako proiektuak.

B) Ikerkuntza fisiopatologikoko proiektuak, oinarriko zein teknologikoa.

2.— Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da, modalitate bakoitzean. Ondorio hauetarako, aurkeztutako eskaeren arteko konparazioa egin ondoren emango dira laguntzak. Konparazio hau 3. eta 8. artikuluetan jarritako balorazio irizpideen arabera izango da. Honekin, eskaeren arteko lehentasun-hurrenkera egingo da eta

Nº-2448

ORDEN de 26 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas a proyectos de investigación sanitaria a iniciar en el año 2002.

El Departamento de Sanidad tiene entre sus competencias la misión de potenciar la actividad investigadora dentro del campo de las ciencias de la salud en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como un elemento fundamental en el desarrollo del sistema sanitario de Euskadi.

A este respecto, la Ley 13/1986, de 14 de abril, de Fomento y Coordinación General de la Investigación, la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, y la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi proporcionan un marco común de referencia para el fomento de la investigación sanitaria, estableciendo las condiciones para un funcionamiento más integrado y eficaz en el Sistema Nacional de Salud.

Por otra parte, el Gobierno Vasco ha aprobado diferentes programas de actuación en el área de la Ciencia y la Tecnología que también establecen un marco de referencia para el desarrollo de la investigación científica y tecnológica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, y de conformidad con el contenido de la Ley 1/2002 de 23 de enero

DISPONGO:**Artículo 1.**— Objeto y ámbito.

1.— Es objeto de la presente Orden el financiar proyectos de investigación sanitaria a iniciar en el año 2002, presentados por entes públicos o privados, radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que habiendo participado en la convocatoria del Fondo de Investigación Sanitaria (FIS) u otras convocatorias del Plan Nacional de Investigación Científica, Desarrollo e Innovación Tecnológica de la Administración General del Estado (AGE) no hayan resultado subvencionados o lo hayan sido sólo parcialmente, con dos modalidades:

A) Proyectos de investigación clínica y de planificación y gestión sanitaria.

B) Proyectos de investigación fisiopatológica, básica o tecnológica.

2.— La presente convocatoria se resolverá en cada modalidad por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de priorización y de valoración fijados en los artículos 3 y

8.3 artikuluan adierazten den muga baino balorazio handiagoa jasotzen duten eskaerak esleituko dira, betiere zeregin honetarako onartutako aurrekontuko kreditua agortu arte.

Bietako edozein modalitatetako laguntzen ebazpenaren ostean, modalitate batean geldikinik balego, beste modalitateko diru partida handitzeko erabiliko litzateke automatikoki.

2. artikulua.– Zenbatekoa eta iraupena.

1.– Programaren guztizko zenbatekoa 532.685,00 euro-koa izango da (bostehun eta hogeita hamabi mila seiehun eta laurogeita bost euro). Hauetatik 330.264,00 euro A modalitateko proiektuak finantzatzeko erabiliko dira, eta 202.421,00 euro B modalitatean sarturik dauden finantzaziorako.

2.– Laguntza bakoitzerako esleituko den diru-zenbatekoa, gehenez ere, 60.100 euro-koa izango da.

3.– Proiektuek 2 urtetik 3 urterako iraupena eduki dezakete.

3. artikulua.– Lehentasuneko irizpideak.

1.– Lehentasuneko proiektutzat hartuko dira bi modalitateetan:

Europako Batasuneko ikerkuntza programetan barne hartutakoak.

Zentro askoren artean partekaturiko proiektu koordinatuak edo protokolo komun bat edukirik Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikerkuntza talde barne hartzen dituzten proiektuak.

2.– Gainera, lehentasuna emango zaie honako haue-tara egokitzen diren proiektuei:

1) A modalitatean:

a) Ikerketaren xedea kontuan hartuta:

– Osasuna Zainduz eta Osasun Planarekin zerikusia duten arloak.

b) Proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-atentzioaren kalitatea hobetzen emango duten laguntza kontutan hartuta:

– Osasun-zerbitzuak ikertzea.

– Ebaluazio ekonomikoa.

c) Ikerkuntza klinikoa bultzatzen zenbateraino lagunduko duen kontutan hartuz:

– Lehenagoko ikerkuntza-bide batekin jarraitzea edo hori sendotzea dakarten proiektuak.

– Ikerketan indartzen doazen arloetako proiektuak: erizaintzan eta lehen mailako atentzioa.

2) B modalitatean:

a) Osasun Sistemarentzat lehentasunekotzat hartzen diren ikerketa oinarrizko edo fisiologikoko proiektuak: errentagarritasun sozio-sanitario handiko ikerkuntza-bideak sendotzea dakartenak edo indartzen doazen ikerketa arloak.

8 adjudicando sólo aquellas que hayan una valoración superior a límite señalado en el artículo 8.3 hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado a tal efecto.

En el caso de que al resolver las ayudas se observase la existencia de remanente, en alguna de las dos modalidades, el mismo se asignará automáticamente a incrementar la dotación destinada a la otra.

Artículo 2.– Cuantía y duración.

1.– El importe destinado a financiar las ayudas convocadas asciende a 532.685,00 euros (quinientos treinta y dos mil seiscientos ochenta y cinco euros), de los cuales 330.264,00 euros se destinan a financiar proyectos de la modalidad A y 202.421,00 euros para la financiación de los incluidos en la modalidad B.

2.– El límite máximo de la cuantía adjudicada a cada ayuda será de 60.100,00 euros

3.– Los proyectos podrán tener una duración de 2 ó 3 años.

Artículo 3.– Criterios de priorización.

1.– Se consideraran prioritarios en las dos modalidades:

Los incluidos en los programas de investigación de la Unión Europea.

Los proyectos multicéntricos coordinados o los proyectos que incluyan varios grupos de investigación de la Comunidad Autónoma del País Vasco con un protocolo común.

2.– Además serán prioritarios aquellos que se ajusten a:

1) En la modalidad A:

a) Por el objeto de la investigación:

– Proyectos relacionado con el Plan de Salud y la Salud Pública.

b) Por la contribución de los proyectos a la mejora del sistema sanitario:

– Investigación en servicios de salud.

– Evaluación económica.

c) Por su contribución al fomento de la investigación clínica:

– Proyectos que supongan la continuidad o consolidación de una línea de investigación existente.

– Proyectos en áreas emergentes de investigación: Enfermería y Atención Primaria.

2) En la modalidad B:

a) Proyectos de investigación básica o fisiológica que se consideren prioritarios para el sistema sanitario: aquellos que supongan la consolidación de líneas de investigación de alta rentabilidad socio-sanitaria o los de áreas emergentes de investigación.

b) Osasun Sistemako teknologiaren hobekuntzaren onerako diren enpresa, patente eta produktuak sortzen laguntzen duten proiektuak, betiere kontuan edukirik Euskal Autonomia Erkidegoaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.

4. artikulua.– Eskabidea eta Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntza eskabidea, Agindu honetako I. Eranskineko ereduaren arabera, proiektua burutuko duen erakundeko arduradunak aurkeztuko du, eta zentroko ikertzaile nagusiak izenpetuko du; azken honek ikerketaren alorrean egiaztatutako gaitasuna izan beharko du. Erakunde eskatzaileak proiektua garatuko dela bermatuko du.

Eskatzaileek hauta dezakete eskabideak aurkezteko paperezko euskarria nahiz euskarri informatikoa.

2.– Laguntza eskabide bakoitzarekin batera, Agindu honen 1. eranskinean datorren ereduaren arabera, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidea paperezko euskarrian bidaltzen bada, Agindu honen 1. artikuluan aipatzen diren Ikerkuntza Sanitariorako Fondoak edo Ministerioen arteko Zientzia eta Teknologia Batzordeak eginiko deialdira aurkeztutako eskabideko agiri guztien lau kopia, bai eta eskabidea tramitatzean sortu diren agiri guztienak ere (ebaluazio-txostenak, aurkeztutako errekursoak, etab.).

b) Euskarri informatikoa hautatzen bada, euskarri informatiko onargarriak 3,5 hazbeteko disketeak eta irakurketa optikoko disko trinkoak izango dira.

c) Eskatzailea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko ez bada, Hirugarren Interesatuaren Datuen Alta, agindu honen II. eranskin moduan ageri dena.

5. artikulua.– Proiektuetan parte hartzea.

1.– Ikertzaile nagusiak laguntza eskatzen duen erakundeko plantilakoa izan beharko du, gutxienez eskabidea aurkeztean den unetik beronen balizko onarpena ematen den arteko denboraldian.

2.– Ikertzaile nagusi bera ezingo da azaldu deialdi honetako proiektu edo azpiproiektu baten baino gehiagotan eskatzaile bezala. Gainera, ikertzaile bakoitzak bi ikerketa-proiektutan bakarrik hartu ahal izango du parte, diru publikoarekin finantzaturako deialdietara aurkeztutako eskabideak eta proiektu koordinatuen azpi-proiektuak barne direlarik.

3.– Ebaluaketan aurrez hautatu diren ikerketa-proiektuen kasuan, ikertzaile nagusiek Osasun Sailak finantzatu dituen ikerketa-proiektuetan eskatutako baldintzak zegokien epean bete ez badituzte, erakunde onuradunek egoera hori zuzendu egin beharko dute deialdi honetarako eskabideak aurkezteko jarritako epea amaitu baino lehen.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.

b) Proyectos que contribuyan a la creación de empresas, patentes o productos que mejoren la innovación tecnológica del sistema sanitario en consonancia con el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 4.– Solicitud y documentación a presentar.

1.– La solicitud de ayuda, según el modelo del Anexo I a esta Orden, será presentada por el gerente o responsable del centro ejecutor del proyecto, y suscrita por el investigador principal, que deberá ser persona de acreditada capacidad investigadora. El ente solicitante será garante de la realización del proyecto.

Los solicitantes podrán optar por presentar sus solicitudes en soporte papel o informático.

2.– A cada solicitud de ayuda, según el modelo que aparece en el Anexo 1 a esta Orden, se acompañará la documentación siguiente:

a) En el caso de enviarse en soporte papel, cuatro copias de toda la documentación de la solicitud presentada a las convocatorias del FIS, CICyT u otras convocatorias a las que hace referencia el artículo 1 de esta Orden, y la que se ha generado en la tramitación de dicha solicitud (informes de evaluación, recursos presentados, etc.).

b) Si se opta por el soporte informático, serán soportes informáticos admisibles los disquetes de 3,5 pulgadas y los discos compactos de lectura óptica.

c) Si el solicitante no pertenece a Osakidetza-Servicio vasco de salud, impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado, que aparece como Anexo II a esta Orden.

Artículo 5.– Participación en los proyectos.

1.– El investigador principal deberá pertenecer a la plantilla del ente que solicita la ayuda al menos durante el periodo comprendido entre el momento de presentar la solicitud y el de su eventual aprobación.

2.– Ningún investigador principal podrá figurar como tal en más de una solicitud de proyecto o subproyecto de la presente convocatoria. Además, un mismo investigador sólo podrá participar simultáneamente en dos proyectos de investigación, incluyéndose en este cómputo las solicitudes presentadas en convocatorias financiadas con fondos públicos, así como los subproyectos de proyectos coordinados.

3.– En caso de proyectos de investigación preseleccionados en la evaluación, cuyos investigadores principales no hayan cumplido en la fecha debida con los requisitos exigidos a sus proyectos de investigación financiados con anterioridad por el Departamento de Sanidad, los entes beneficiarios deberán corregir dicha situación antes de finalizar el plazo fijado en esta convocatoria para la presentación de solicitudes.

Artículo 6.– Plazo y lugar de presentación.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da izango da, Agindu hau indarrean hasten denetik aurre-
ra kontatuta.

Eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendariari zuzendu eta bidaliko zaizkio (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz).

Halaber, eskabideak aurkeztu ahal izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4. artikuluan adierazten dituen moduetan ere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emaniko erredakzioaren arabera.

7. artikulua.— Ebazpena.

1.— Osasun Sailburuordeak ebatziko ditu eskabideak, Osasun Sailburuak izendatutako Balorazio Batzordearen proposamena jaso ondoren. Ebazpenok Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

A modalitateari dagozkion Proiektuetarako Ebaluazio Batzordea ondoko hauek osatuko dute: lehendakari, Osasun sailburuordea; eta bokalak, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, Osasun Publikoko zuzendaria, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaria Osasun Plangintzako zuzendariordea eta Osasun Plangintza eta Antolamendua-
ren Zuzendaritzako teknikari bat, azken honek, gainera idazkari lanetan jardungo duelarik.

B modalitatean barne hartzen diren Proiektuetarako Ebaluazio Batzordea ondoko hauek osatuko dute: lehendakari, Osasun sailburuordea; eta bokalak, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, Osasun Plangintzako zuzendariordea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako ordezkari bat, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saileko Politika Zientifikoko Zuzendaritzako ordezkari bat, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Teknologia eta Berrikuntzaren Zuzendaritzako ordezkari bat eta Osasun Plangintza eta Antolamendua-
ren Zuzendaritzako teknikari bat, azken honek, gainera idazkari lanetan jardungo duelarik.

Bi batzordeak osatzen dituzten kideen izen-deiturak, era berean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.— Ebazpen-prozesuan zehar, Batzordeak egoki ikusiz gero, exiji diezaieke eskatzaileei egoki irizten diren agiri osagarriak aurkez ditzaten bai eta iradokizunak egin ere ente eskatzaileei beren proiektuetan aldatetak egin ditzaten, eta horrela programaren helburuetara hobeki egokitu daitezten.

3.— Bere eginkizuna betetzeko helburuaz, Batzordeak eskatu ahal izango die alor bakoitzeko adituei proiektuen kalitate zientifikoaren balorazioa egiteko.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir de la entrada en vigor de esta Orden.

Las solicitudes se dirigirán y remitirán al Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad (C./ Donostia-San Sebastián, 1, C.P. 01010, de Vitoria-Gasteiz).

Así mismo, las solicitudes podrán presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 7.— Resolución.

1.— Las solicitudes serán resueltas por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la correspondiente Comisión de Valoración nombrada por el Consejero de Sanidad, mediante Resolución que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

La Comisión de Valoración de los Proyectos pertenecientes a la opción A estará presidida por el Viceconsejero de Sanidad y serán vocales: el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria, el Director de Salud Pública, el Director de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud, el Subdirector del Plan de Salud y un técnico de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria que actuará, además, como secretario.

La Comisión de Valoración de los proyectos incluidos en la opción B estará presidida por el Viceconsejero de Sanidad y serán vocales: el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria, el Subdirector del Plan de Salud, un representante de la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud, un representante de la Dirección de Política Científica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, un representante de la Dirección de Tecnología e Innovación del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y un técnico de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, que actuará como secretario.

Las composiciones nominales de ambas Comisiones serán, así mismo, publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.— A lo largo del proceso de resolución la Comisión podrá, si así lo estima conveniente, exigir a los solicitantes la presentación de la documentación complementaria que se considere oportuna así como sugerir a los entes solicitantes la introducción de modificaciones en los proyectos para conseguir una mejor adaptación de los mismos a los objetivos de este programa.

3.— Para el cumplimiento de su cometido la Comisión podrá solicitar una evaluación de la calidad científica de los proyectos a expertos en las áreas correspondientes.

4.– Osasun Sailak onarpen agiria bidaliko dio laguntza hartzaileari; honek, behar bezala beteta, sailera itzuli beharko du zentroko arduradunak eta ikertzaile nagusiak izenpeturik, hamabost egun balioduneko epean, jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Horrako agiri horretan zenbatekoa jasoko du, bai guztira egiten duena, bai urteka banatuta.

Epe horretan itzuli ezik, laguntza esleitu zaion entitateak laguntzari uko egin diola ulertuko da eta kasu horretan zenbateko hori diru-laguntzarik jaso ez duen beste eskatzaile bati eman ahal izango zaio, Baloiespen Batzordeek proposatutako ordezkapen eta lehenetasun hurrenkerari jarraituz.

5.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka go-ra jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osasun sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, lehen aipatutako 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluetan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen idazkeran, ezarritakoaren arabera, egoki irizten zaion beste edozein ekintza legal aurrera eramateko eskubidearen kaltetan izan gabe.

6.– Baldin eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta bost hilabeteko epean Osasun sailburuordearen ebazpena jakinarazi ez bada, ebatzi gabeko eskariak ezetsizat joko dira, lehen aipatutako 30/1992 Legeko 44. artikuluan ezartzen diren ondorioetarako, baina lege horrek Administrazioari modu adierazian ebazteko ematen dion aginduaren kontra joan gabe. Ebaluazio zientifiko-teknikoa egiteko behar izan den denborak eten egingo du epe hori.

8. artikulua.– Esleipena eta kuantifikazioa.

1.– Laguntzen esleipena Ikerketa Sanitariorako Fondoaren ebazpenen arabera egingo da edo Estatuko Administrazio Orokorraren (EAO) Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Plan Nazionalaren ebazpenen arabera.

2.– Esleipena proiektu bakoitzaren errentagarritasun sozialaren arabera egingo da, irizpide hauei jarraiki:

– Aurkeztutako proiektuaren kalitate zientifikoa: Gehienez %30.

– Ikerketa Batzorde bakoitzak ezarritako lehenetasun-hurrenkerak: Gehienez %20.

– Xedapen honen 3. artikuluan adierazitako lehenetasun-irizpideekin ikerketa-proiektuek duten lotura: Gehienez %50.

3.– Aurreko atalean aipatzen diren irizpideak gauzatu eta %60ra gutxienez ailegatzeko ez diren proiektuak ez dira agindu honen araberrako finantzazioko onuradunak izango.

4.– El Departamento de Sanidad remitirá a la entidad adjudicataria de la ayuda el correspondiente documento de aceptación, que se deberá devolver al Departamento debidamente cumplimentado con las firmas del responsable del centro y la del investigador principal, en el plazo de quince días a contar desde que lo reciba. En dicho documento constará el importe total de la ayuda así como su distribución por anualidades.

Caso de no devolverlo en dicho plazo, se entenderá que la entidad adjudicataria renuncia a la ayuda, pudiéndose en tal supuesto destinar el importe correspondiente a la misma para la financiación de otro proyecto de investigación no subvencionado y siguiendo el orden de prelación determinado por las Comisiones de Valoración.

5.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes, contado a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otra acción legal que estimen pertinente.

6.– Si en el periodo de cinco meses a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes no se ha notificado la Resolución expresa del Viceconsejero de Sanidad, podrán entender los interesados desestimadas sus solicitudes a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992 antedicha, sin perjuicio de la obligación que dicha Ley impone a la Administración de resolver expresamente. El periodo utilizado para la evaluación científico-técnica interrumpirá dicho plazo.

Artículo 8.– Adjudicación y cuantificación.

1.– La adjudicación de las ayudas se realizará tras conocerse las resoluciones de la convocatoria del Fondo de Investigación Sanitaria u otras del Plan Nacional de Investigación Científica, Desarrollo e Innovación Tecnológica de la Administración General del Estado (AGE).

2.– La adjudicación se realizará atendiendo a la rentabilidad social de cada proyecto, según los siguientes criterios:

– La calidad científica del proyecto presentado: Máximo 30%.

– El orden de prioridad asignado por cada Comisión de Investigación: Máximo 20%.

– La relación de los proyectos de investigación con los criterios prioritarios señalados en el artículo 3 de esta disposición: Máximo 50%.

3.– No accederán a la financiación contemplada en la presente Orden aquellos proyectos que no obtengan un mínimo de 60%, resultantes de la aplicación de los criterios contemplados en el apartado anterior.

4.– Laguntzak kuantifikatzeko, kontutan hartuko dira proiektu bakoitzaren finantzazio-beharrak, onartu den aurrekontua eta gainerako finantziario-bideak. Laguntza jarraian aipatzen diren gastuak estaltzeko erabiliko da:

a) Pertsonal gastuak. Hemen sartzen dira erakunde eskatzailearekin kontratu-loturarik eduki gabe proiektuan parte hartzen duten pertsonen eragindako kostuak.

b) Ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratazeko gastuak, hauen artean barne hartuko direlarik proiektua burutzeko erabili den material inbentariagarria, material suntsigarria eta gainerako gastu osagarriak, hala nola, proiektua gauzatzeko beharrezko diren material bibliografikoa eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

c) Beste zenbait gastu, hala nola, bidaiak eta dietak, eta aurreko ataletan sartu ez diren gastu batzuk, baina betiere proiektuarekin zuzenean erlazionatuak izan beharko dutenak.

5.– Artikulu honen laugarren puntuan adierazi diren aurrekontu partiden egitura loteslea da. Baldin proiektua garatzen ari den bitartean beharrezko ikusten bada partiden artean aldaketak sartzea, hauek alde aurretik eta zergatiak azalduz eskatu beharko ditu proiektuko ikertzaile nagusiak, zentroko ordezkari legalaren onespenerekin Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzan, zeinak egoki deritzon eran ebatziko baitu.

9. artikulua.– Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzen ordainketa era honetan egingo da: laguntza onartzen den unean ordainduko da lehenengo urteko guztia. Gainontzeko urtekoak, urte bakoitzeko txostena eta 11. artikuluan zehazten diren gastuen justifikazioa bidali eta Osasun Sailak onartu ondoren.

10. artikulua.– Zentro onuradunaren betebeharrak.

Agindu honek arautzen dituen laguntzen onuradunek, nolana ere, betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Esleitutako laguntza onartzea, 7.4. artikuluekin bat etorritik.

b) Laguntza berez dagozkion zereginetarako erabilitea. Horretarako, jasotako zenbatekoak proposatutako helburuetako erabiliko dituzte onuradunek, dagozkien aurrekontuetan sartuz, eta erakunde horietan dauden arau orokorrei jarraituz egingo dituzte gastuak.

c) Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, berez dagozkien funtzioen jardunean, Deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dieten informazio guztia ematea erakunde horiei.

d) Diru-laguntza eskabidean agertu ziren datu edo baldintzetakoren bat aldatzen bada, horren berri ematea,

4.– La cuantificación de las ayudas se calculará estimando las necesidades de financiación de cada proyecto, teniendo en cuenta el presupuesto presentado y las restantes fuentes de financiación. La ayuda se destinará a cubrir los siguientes tipos de gasto:

a) Gastos de personal, que incluye los costes ocasionados por la participación en el proyecto de personal no vinculado contractualmente con el organismo solicitante.

b) Gastos de adquisición de bienes y contratación de servicios que incluirán el material inventariable utilizado para la realización del proyecto, el material fungible y demás gastos complementarios tales como material bibliográfico y contratación de servicios externos necesarios para la ejecución del proyecto.

c) Otros gastos tales como viajes y dietas, u otros no incluidos en los apartados anteriores que, siempre, deberán estar directamente relacionados con el proyecto.

5.– La estructura de partidas presupuestarias señaladas en el anterior punto 4 de este artículo es vinculante. Si en el transcurso del desarrollo del proyecto se considerara necesario el introducir cambios entre partidas, estos deberán solicitarse con carácter previo y de forma motivada por el investigador principal del proyecto, con el visto bueno del representante legal del centro, a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, que resolverá lo que proceda.

Artículo 9.– Forma de pago.

El pago de las ayudas se realizará de la forma siguiente: la primera anualidad, en el momento de la aceptación de la ayuda; el resto de anualidades, tras el envío, y aprobación por el Departamento de Sanidad, del informe anual y justificación de gastos mencionados en el artículo 11.

Artículo 10.– Obligaciones del centro beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida, en los términos del artículo 7.4.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida. Para ello aplicarán las cantidades recibidas a los fines propuestos, tras incluirlas en sus respectivos presupuestos, y realizarán los gastos con arreglo a las normas generales que existan en dichos organismos.

c) Facilitar a la Oficina de control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar por escrito a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los

idatziz, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari, bai eta diruz lagundutako jarduera horietarako beste iturriren bateko finantzaketarik lortzen bada ere.

11. artikulua.– Onuradunaren konpromisoak.

1.– Ikertzaile nagusiak urteko txosten zientifikoa aurkeztu beharko du ISAF-eko Ikerkuntza Proiektuen deialdiari atxikirik doan dokumentazioan ageri den eskemaren arabera, erakundearen ordezkari legalaren oniritziarekin Txosten horretan proiektua zenbateraino garatu den azaldu beharko da eta lortu diren zatikako helburuak ere bai.

Halaber, erakunde onuradunak oroit-agiriak barne hartzen duen bitartean egin diren gastuen justifikazioa bidali beharko du jatorrizko fakturen edo kopia konpulsatuen bitartez.

2.– Proiektuaren martxa hobeto ebaluatzeko, hala komeni dela irizten dion kasuetan, Osasun Sailak egoiki deritzon informazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango du.

3.– Lana amaitu eta sei hilabeteren barruan, erakunde onuradunak memoriaren bi ale bidali beharko dizkio ikertzaile nagusiak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari. Memoria ikertzaile nagusiak egingo du, Ikerkuntza Sanitariorako Fondearen ikerketa-proiektuetarako deialdiaren eranskinean azaltzen den eskemaren arabera. Horrezaz gain, egin diren gastu guztiak justifikatuko ditu lehendik bidalita ez dauden jatorrizko fakturak edo kopia konpulsatuak bidaliz.

4.– Halaber, ikerketaren ondorioz sortzen diren argitalpen, tesi, karrera amaierako proiektu eta kongresu-jakinazapenen kopia bana ere bidali beharko da. Horietan guztietan eta aurrerago sor daitezkeenetan, Osasun Sailak emandako laguntza aipatu beharko da berriaz.

5.– Era berean, diruz lagundutako ikerketaren emaitza diren aplikazio praktiko, patente edo proiektuei buruzko informazioa ere bidaliko da.

12. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Laguntza hauekin batera, beste mota bateko diru-laguntza edo laguntza batzuk ere jaso daitezke, baldin eta horrek gainfinantzaketarik sortzen ez badu. Horrelakorik gertatuz gero, gutxitu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, dagokion gehienezko mugaraino.

13. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan edukitako baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, beti ere helburua bete dela ulertzen bada, eta hala badagokio helburu berarekin beste erakunde pribatu edo publikoren baten laguntzarik jasoz gero, diru-laguntza ematen duen ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion

datos que se reflejaron en la solicitud, así como la obtención de cualquier otro tipo de fuente de financiación para las actividades subvencionadas.

Artículo 11.– Compromisos del beneficiario.

1.– El investigador principal deberá presentar una memoria anual científica según el esquema que aparece en la documentación anexa de la convocatoria de Proyectos de Investigación del FIS, con el visto bueno del representante legal del organismo. En dicho informe se hará una descripción del estado de desarrollo del proyecto y de los objetivos parciales alcanzados.

Asimismo, la entidad beneficiaria deberá remitir la justificación, mediante facturas originales o copias compulsadas, de los gastos realizados durante el periodo que abarca la memoria.

2.– En aquellos casos en que estime conveniente, el Departamento de Sanidad podrá recabar la presentación de la información complementaria que se considere oportuna para una mejor evaluación de la marcha del Proyecto.

3.– Dentro de los seis meses siguientes al término del trabajo, la entidad beneficiaria enviará a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad una memoria por duplicado del trabajo, elaborada por el investigador principal, según el modelo que aparece en la documentación anexa de la convocatoria de Proyectos de Investigación del FIS además de la justificación de los gastos totales realizados, mediante el envío de las facturas originales o copias compulsadas que no hayan sido previamente remitidas.

4.– Asimismo, se remitirá una copia de todas las publicaciones, tesis, proyectos fin de carrera y comunicaciones a congresos que surjan como resultado de la investigación. En todas ellas, y en las que con posterioridad pudieran originarse, deberá mencionarse expresamente la ayuda concedida por el Departamento de Sanidad.

5.– También se remitirá información sobre las aplicaciones prácticas, patentes o productos resultantes de la investigación subvencionada.

Artículo 12.– Compatibilidad de las ayudas.

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda para el mismo fin siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 13.– Alteración de las condiciones de la subvención.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la cuantía de la

murrizpen-ebazpena emango du Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak, bertan diru-laguntzen zenbatekoak doituko direlarik.

2.– Onuradunak, justifikatutako arrazoiak direla eta, ikerketa-proiektua amaitu ezin badu, txosten bat aurkeztu beharko du azken memoriaren orde. Osasun Antolamenduko Zuzendaritzak espedienteaz aztertu egingo du, hala badagokio, onuradunak itzuli behar dituen zenbatekoak zehazteko.

14. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoarekin bat etorritik, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena, baldin onuradunak betetzen ez baditu ezarritako baldintza eta epeak edota beka beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu egin duela eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar dituela deklaratu ahal izango da, ebazpen bidez, prozedurazko izapideak egin ondoren, bidezkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen kalterik gabe. Diru-zenbateko horiek, ondorio guztietarako, diru-sarrera publikotzat joko dira.

Ez-betetzeagatik espedienteaz hasi eta ebazteko eskumena Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari dagokio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2.artikuluan zehazten den guztizko zenbatekoa edota, halaber, modalitate bakoitzari esleitutako zatikako zenbatekoak aldatu ahal izango dira, eskaturiko laguntzen guztizko kopurua kontuan edukiz, Osasun Saileko beste programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratu diren baliabide ekonomikoen funtzioan, baldin deialdi honen ebazpena baino lehenagokoak badiara. Inguruabar hori jakitera emango da Osasun sailburordearen ebazpenaren bitartez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan aurreikusten ez den guztian aplikatu ahal izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duena, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen erredakzioan.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 26a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ayuda. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna Resolución de minoración, en la que se reajustará el importe de la ayuda concedida.

2.– Si el beneficiario, por causas justificadas, no pudiese terminar el proyecto de investigación, deberá presentar un informe que sustituya a la memoria final. La Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria estudiará el expediente para determinar, en su caso, las cantidades que deba devolver el beneficiario.

Artículo 14.– Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que el beneficiario incumpliere los requisitos y plazos establecidos o el destino de la ayuda, se declarará, previa la sustanciación de los trámites procedimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución de expediente por incumplimiento el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe total consignado en el artículo 2, así como los importes parciales asignados a cada modalidad, podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente Orden será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2002.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ERANSKINA

OSASUN IKERKETA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA

ZENTRO ESKATZAILEA	
POSTA-HELBIDEA	
HERRIA	P.K.
ZENTROKO KUDEATZAILEA EDO ARDURADUNA	
IKERTZAILE NAGUSIA	
ZERBITZUA / UNITATEA	
IKERKETA-PROIEKTUAREN IZENBURUA	
PROIEKTUAK JARRAITUKO DUEN IKERKETA-ILDOA	
BESTE ENTE KOLABORATZAILE BATZUK	
BESTE KOFINANTZATZAILE BATZUK	
PRODUKTUAK, PATENTEAK EDO ESPERO DIREN BESTE APLIKAZIO PRAKTIKO BATZUK (leku gehiago behar izanez gero, orri bereizi batean azaldu)	

(e)n, 2002ko -ren -(e)an

Zentroko kudeatzaile edo
arduradunaren sinadura

Ikertzaile nagusiaren sinadura

ANEXO I

SOLICITUD DE AYUDA A PROYECTO DE INVESTIGACIÓN SANITARIA

<i>CENTRO SOLICITANTE:</i>	
<i>DIRECCIÓN POSTAL:</i>	
<i>LOCALIDAD:</i>	<i>C.P.:</i>
<i>GERENTE O RESPONSABLE DEL CENTRO:</i>	
<i>INVESTIGADOR PRINCIPAL:</i>	
<i>SERVICIO/UNIDAD:</i>	
<i>TITULO DEL PROYECTO DE INVESTIGACIÓN:</i>	
<i>LÍNEA DE INVESTIGACIÓN EN LA QUE SE INCLUYE EL PROYECTO:</i>	
<i>OTROS ENTES COLABORADORES:</i>	
<i>OTROS COFINANCIADORES:</i>	
<i>PRODUCTOS, PATENTES U OTRAS APLICACIONES PRÁCTICAS ESPERADAS (ampliar en hoja aparte si es necesario)</i>	

En.....a.....de.....de.....

*Firma del Gerente o
Responsable del Centro*

*Firma del Investigador
Principal*

ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA

II.ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA/ HIRUGARREN INTERESATUA / ALTA DE DATOS /TERCERO INTERESADO

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)

(1) N.A.N./I.F.K. D.N.I./C.I.F
(2) Bi abizenak eta izena/Sozietatearen izena Dos apellidos y nombre/Razón Social

HELBIDERATZE-DATUAK
DATOS DE DOMICILIACION (B)

Helbidea Dirección	
Posta kodea Código	Udala Población
Lurraldea Provincia	

BANKUAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS (C)

(1) Bankua / Banco	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>		
(2) Agentzia / Agencia	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>		
(3) K.D. / D.C.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	K/Korrontea / C.Corrente	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
(4) Jabea / Titular			

Bankuaren adostasuna Conforme Banco
Sinadura eta zigilua Sello y Firma (D)

Hirugarrenaren adostasuna Conforme Tercero
Sinadura eta zigilua Sello y Firma (E)

Sailaren onespena V.ºB.º Departamento
Baimendutako sinadura Firma Autorizada (F)

Kontabilitatearen onespena V.ºB.º Contabilidad
Baimendutako sinadura Firma Autorizada (G)